

Ikasleen Txokoa Hernani Institutua

**'Eyjafjallajokull' sumendia,
planeta bizirik / II**



Van Gogh "Gau izartsua" / III

**IV / Fernando Morillo:
hamaika urtez, hamaika obra**
ALAITZ, HAIZEA, ETA JANIRE



Egileen argazkia / IV

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

HERNANI INSTITUTUA

Gure planeta bizirik dago eta azken bolada honetan honela adierazten digu. Orain Islandiako Eyjafjallajokull sumendiaren txanda da. Sumendi hau 200 urtez lo egon eta gero martxoaren 20an esnatu zen eta apirilaren 14an gogortasunez ekin zion. Sumendi honen ondorioz, hainbat arazo sortu dira Europa osoan zehar.

'Eyjafjallajokull' sumendia, planeta bizirik

ISLANDIAKO sumendiak, izotz geruza baten azpian daude, baina barneko material magmatikoa ateratzen saiatzen denean, azkenean glaziarri lekua kentzen diote. Glaziarra desagertutakotan, leherketak bortitzagoak izan ohi dira goiko estalkia ez dagoelako.

Azken erupzioa 1821ean Sumendi honek, 1821ean erupzio txiki xamar bat izan zuen, baina hamahiru hilabetez luzatu zena. Hilabete batzuetan besteetan baino errauts gehiago bota zuen, batez ere, sumendiaren hegoalde eta mendebaldean. Baina zoritxarrez, uda guztian zehar tenperaturak neguko antzekoak izan ziren eta hori dela eta, Europan uda gabeko urtea deitu izan zaio.

2010eko erupzioa askoz ere handiagoa izan da. Izan ere, sumendi hau izotzetik 200 metrora dago eta erupzioa gertatu zenean minutu gutxi behar izan ditu gaineko izotz guztia eta ingurukoa urtzeko.

Izotzaren urtze eten-gabea batzuetan, munduko lau ibai handienen ur emariaren antzekoa izatera iritsi daiteke. Gertaera hauek, munduko herrialde gutxitan gertatzen dira eta Islandia dugu horietako bat.

Mundu osoan zehar zabaldua

Arazo hau, mundu guztian zabaldu da, izan ere, telebista kate guztietan azaldu da berri honi buruzko informazioaren bat. Europa osoan kaosa eragin zen, sumendiak botatako errautsaren ondorioz; kontinente zaharreko hegaldi guztiak



'Eyjafjallajokull' sumendiaren erupzioa.



bertan behera utzi behar izan zituzten; izan ere, errautsak hegazkinen turbinetan arazoak sortu zitzaizketelako.

Europako Aire Nabigaziorako Segurtasun Agentziak adierazitakoren arabera, Norvegiako, Erresuma Batuko eta Irlandako aireportuak izan ziren ixten

lehenak. Gero, Danimarkak, Herbehereek, Belgikak, Suitzak, Finlandiak, Suediak eta Frantziak ere neurriak hartu zituzten. Larrialdietarako hegaldiei baino ez zieten eman aireratzeko baimena herrialde askotan. Ondorioz, 17.000 hegaldi bertan behera geratu ziren.

Arazoak Islandian

Hegaldiez gain, Islandian ere arazoak eragin ditu sumendi honek. Inguruko herrietako jendeak minutu gutxitan beren bizilekua utzi, eta berriz ere hutsetik hasi behar izan dute.

Hasieran esan bezala, gure planeta bizirik dago eta aurten erakutsi du

bereziki, horren erakusle baitira Haitiko eta Txileko lurrikarak, Brasilgo uholdeak... Argi dago, planeta suntsitzen ari garela eta azken batean, gure bizilekua da hondatzen ari garena eta iragarkietan, telesailetan... behin eta berriz esaten ari diren bezala, honi irtenbide bat aurkitu behar diogu. ■

Van Gogh "Gau izartsua"

1880tik aurrera, artista batzuk gairatzen jo zuten inpresionismoa, eta bide pertsonalagoak bilatu zituzten. Frantzia garatu zen 1886 eta 1905 urteen artean. Postinpresionismoa, ez zen mugimendu inpresionista bezalakoa izan. Postinpresionistak inpresionismotik abiatu ziren, baina berehala hautsi zuten harenkin, adierazpen-modu berriekin. Argiaz gain, batik bat, gauzen eta pertsonen adierazkortasuna irudikatzeaz arduratu ziren. Errealitatea ez zen hain garrantzitsua eta pintore bakoitzak nahi zuen erara interpretatzen zuen hau. Postinpresionista nabarmenak Cézanne, Toulouse-Lautrec, Gauguin eta Van Gogh izan ziren.

Postinpresionismoaren eragina

Postinpresionismoak, beste gauza batzuen artean, marrazkiaren garrantzia berreskuratzea eta argiaz gain gauzen adierazkortasuna, eta pertsonen argitasuna atzemaitea ere suposatuko du.

Postinpresionistek honako ezaugarri hauek zituzten: formaren eraketa, marrazkia eta giza irudiarekiko interesa zuten. Kolore oso kontrastatuak erabili zituzten, planoak eta formak definitu eta bereizteko. Efektu piktorikoak, egituren, espazioen, eta koloreen bilaketan oinarritu zituzten. Konposizio sinplifikatuak eta estatikoak nagusi ziren, ondo definituriko profiletako masa kromatikoak.

Van Gogh-ren bizitza

Vincent Van Gogh Herbeheretan jaio zen, Brabant-en. Hamasei urterekin lanean hasi behar izan zuen. Ez zen 27 urte bete arte marrazten eta pintatzen hasi eta hogeita hiru urte besterik ez zituen egin artegintzan.

Irakasle lanetan ibili ondoren, misiolari moduan joan zen Afrikara, baina bere pertsonalitate berezia zela eta, ez zen onartua izan. Etsiturik Europara itzuli zen.

Holandan eman zuen aldiak, litografiak eta egurren egindako grabatuak kopiatzen hasi zen. Nekazariak, erretratuak eta, batez ere, paisaiak marraztu zituen. Maitemindurik zeukan emakume baten arbuioz, eta aitarekin zuen liskarrezko harremanaren ondorioz, aitak etxetik botatu eta Hagan hartu zuen bizilekua. Berrehun bat koadro egin zituen, margo ilunez margotutako, pintzelkada adierazgarriak, bolumenak argi ilun zakar eta indartsu batez nabarmenduak.



Vincent Van Gogh-en autoerretroa.

tiak ezagutu zituen, Seurat eta Pissarro bereziki, baita Gauguin ere. Urrats handi eta bizkorak egin zituen Van Gogh-en arteak: margo argiak erabili zituen loreen eta lore ontzien koadro txiki nabardura bitxikoak egiteko.

Anberesen egonaldi garrantzitsua

Anberesen egindako egonaldia garrantzi handiko urratsa izan zen. Bertan Rubensen margolanak aztertu eta lehenengo aldiz ikusi zituen japoniar grabatuak, baita miretsi eta aurrerantzean haien bilduma egin ere.

Parisera, 1886. urtean iritsi zen, inpresionistek beren azken erakusketa egin zuten urte berean. Bere anaiaren bitartez ia inpresionista guz-

tiak ezagutu zituen, Seurat eta Pissarro bereziki, baita Gauguin ere. Urrats handi eta bizkorak egin zituen Van Gogh-en arteak: margo argiak erabili zituen loreen eta lore ontzien koadro txiki nabardura bitxikoak egiteko.

1888 urte hasieran, Parisetik alde egin zuen. Parisetik joateko premia zuen, hasia baitzen inpresionismotik urruntzen, zaharkitua zegoela iruditzen baitzitaion. Arlesera abiatu zen. Han oinarri-oinarrizko aurkikuntza bat egin zuen: bazter haietako eguzki-argia. Van Gogh Arlesera berekin bizitzera joateko deia egin zion Gauguini. Pintatzen buru-belarri aritu ziren elkarrekin, baina egoera hark ez zuen asko iraun. Izan ere, liskar gogorra izan zuen Gauguinekin, hura hiltzen saiatu zen. Horren ordainetan, ezkerreko belarria moztu zuen. Bakardade latzean geratu zen berriro. Ge-

rozitik, lasaialdi bat izan zuen eta Arleseko biztanleen eskariz, ospitalean sartu zuten arte.

Depresioaldiak eta susperraldiak

Hilabete batzuk geroago, Saint-Rémy-de-Provenceko erruki etxean sartzeko erabakia hartu zuen. Depresioaldiak eta susperraldiak izan zituen eta lanean buru-belarri aritu zen. Paisaiak, loreen koadroak, erretratuak... pintzelkada etenen bidez, neoinpresionistek erabili izan zuten modu berean pintatu zituen.

1890eko maiatzean, Parisera itzuli zen eta handik egun batzuetara Auvers-sur-Oise herrian hartu zuen egoitza. Han Gachet doktorea arduratu zen Vincent zaintzeaz. Hango giro lasaiak eta inguruko goxotasunak bultzaturik, haren margotzeko modu zakarra eta asaldua baretu egin zen. Barealdi hark, ordea, ez

zuen asko iraun; anaia Holandara joan eta margolaria bakar-bakarrik sentitu zen berriro ere eta estiloa asko gogortu zitzaion. Uztailaren 27an, soroetan barrena galdurik, bere buruari tiro egin zion bularrera eta bi egun beranduago hil egin zen. Handik gutxira (1891ko urtarrilan) bere anaia Theo hil zen.

Gauak menderatzen duen sentipena

Gau izartsua koadro bat da, ospitale psikiatrikoan pintatutako gaueko koadro bat. Gizonaren drama guztia islatzen du, komunikazio eta naturan integratzeko antsietatea. Garrantzitsua da, gauak menderatzen duen sentipenaren egitura. Gau erreale bat da. Badirudi izarren zorabioak iluntasuna irentsiko duela.

Zirkulu konzentrikoz margotzen ditu izarrak. Zurrumbilo horiek, bere desesperazioa islatzen dute. Pintzelkada energikoak eta uhintuak. Kolore biziak erabili zituen, horiak, kolore ilun eta batez ere urdinarekin kontraste eginez. Sentitzen duena adierazten du; horrek espresionismo kutsua ematen dio koadroari. Erromantizismo kutsua ere badu, natura gaia duelako. Lerroak eta ingeradak oso zehatzak dira. Zertzelada lodiak dira nagusi, eta horiekin egiten du marrazki profila. Konposizio aldetik zuhaitzekin, artzipreekin, horizontaltasuna hausten du.

Espresio handiko pintura da. Kolore planoak darabilzki eta ohiko perspektiba baztertzen du. Nahita islaturiko primitibismoa ikus dezakegu, ikuslearengana gerturatzen. Bere egoera psikologikoak okerrera egiten zuen heinean, zertzelada uhintuagoa bihurtzen zen.

Ondorengoan eragina

Van Gogh eragin handia izan zuen bere ondorengo artistengan. Favistek pintzelkaden bitartez nola antolatu ikasi zuten beregandik; espresionistek, berriro, margoek izan dezaketen indar eta zeregin sinbolikoa. Van Gogh 879 koadro, 10 bat grabatu eta 1.756 marrazki egin zituen pintatzen hasi zenetik hil zen arte. Haren lanak hainbat museotan daude. ■

Fernando Morillo: hamaika urtez, hamaika obra

Fernando Morillo idazlea azpeitiarrak dugu. Berak esanda koaren arabera, txikitatik irakurle erratua izan da.

Irakurtzeaz gain, beste hainbat zaletasun ere baditu. Hala nola, lagunak, bidaiatzea, musika, filmak, fisika, filosofia... batez ere azken biak, bera fisika eta filosofia ikasitakoa baita

Liburu bilduma zabala du, adin guztietarako aproposa dena. *Bilbo Samurari* liburua da kaleratu duen azken obra, duela gutxi argitara emana. Honen aurretik, zerrenda luze bat du. Idatzi zuen lehena *Gudaoste ametsak* izan zen 1999an egin zuena. Urte berean *Bila nazatela* argitaratu zuen. Ondoren *Sexu egunsentiak*, eta 2000 urtean, *Bihotz nahasiak* eta *Ortzadarra sutan* argitaratu zituen. Beranduago, *Izar malkokak*, *Arriskupean*, *Seximenduz*, *Suminaren estrategia* eta beste hainbat obra kaleratu zituen.

'Suminaren estrategia'

Guk institutuan *Suminaren estrategia* liburua irakurri dugu. Horrez gain, Fernando Morillo bera hitzaldi bat ematera etorri zitzaigun. Hona hemen liburuaren laburpena:

«Aimar Goikoetxea antropologoak, dei bat jaso zuen, Florarena, eta Zumaiko jatetxe batean egin zuten hitzordua. Aimar harriturik, bertara joan da, eta han Florak kontatzen dio literatur txapelketa bateko epaimahaikide bat zela bera, Flora; Aimarren liburuak ez zuela irabazi, baina lan bat eskaini nahi ziola: bere semeak etxetik alde egin zuen eta etxera bueltatzea nahi zuen. Horretarako hainbat datu eman zizkion eta lanaren truke, 20.000 euro eskaini zizkion.»

Aimarrek bere pisukideari koadro bat eskatu, eta Florak emandako informazioaz baliatuz, Erika, Federen lagun minaren etxera joan zen. Erikarekin hitz egiten hasi zen informazioa eskuratzeko, eta Garbiñe, Federen neskalagunari buruz informazio baliagarria lortzen du. Izan ere, Garbiñek Florarekin liskar bat eduki eta horregatik joan omen zen Fede amaren etxetik.

Bestalde, Garbiñek Basur-

toko ospitalean egiten zuela lan jakin zuen. Hurrengo egunean Basurtora joan zen Garbiñeren bila, apaizez jantzita, eta Garbiñe gorputegiaren ondoan bilatu zuen. Arazoa kontatzea lortu zuen. Hurrengo egunean Garbiñek bere buruaz beste egin zuen.

Orduan Aimarrek Garbiñeren psikologoarengana jo zuen. Bertan Garbiñe Isabel Nuñez izenarekin joaten zela jakin zuen. Fede eta Garbiñe psikologo berberarengana joaten ziren.

Erikarekin elkartu zen berriro Aimar, eta orduan jakiten du, Federen aita hil zenean bere enpresa Floraren esku geratu zela, eta liskarregatik, batek bere buruaz beste egin zuela. Gizon horrek xakean aritzen zen alaba bat omen zuen. Interneten begiratu zuten Irunera iritsi zen. Bertan Garbiñeren argazkia ikusi zuen xake elkartearen, baina Udane izenarekin.

Beraz, Garbiñek Fede hil nahi zuen ama batentzat minik handiena semea hiltzea delako. Garbiñe ez zegoen hilda, eta Federi deitu zion berarekin hitz egin nahi zuela esanez, arriskuan zegoelako.

Fede etxean zegoela, Garbiñe azaldu zen, zuri-zuri, bere irudimena zela esanez. Pilula batzuk hartzera bultzatu zuen eta Fedek hartu.

Garbiñe irtetear zegoela, etxean Aimarrekin topatu zen eta segidan Fedek atea ireki zuen. Garbiñe zur eta lur geratu zuen. Orduan Aimarrak Florak dena ikertzeko kontratatu zuela azaldu zion. Bazekiela ustezko hilketa prestatua izan zela. Bazekiela Fede hil nahi zuela eta horregatik jarri zuela jakinaren gainean.

Bestalde, esan zion, ez zuela salatuko, eta Flora kartzelan sartzeko frogak zituela, lortu zituela. Horrela Udane mendekatzeko aukera zuen, baina hitza betetzen ez bazuen salatu egingo zuen.»

Liburu interesgarria

Amaitzeko esan, euskal liburuaren artean interesgarrienetarikoa bat dela. Izan ere, istorio benetan erakargarria eta era berean korapilatsua baitugu. Halaber, idazkera simple, baina landua darabil Morillok liburu honetan. Guk, irakurtzera animatzen zaituztegu. ||

Alaitz, Haizea, Janire
Hernani Institutua



Fernando Morillo.

'Suminaren estrategia' liburua, euskal liburuaren artean interesgarrienetako bat da. Izan ere, istorio benetan erakargarria eta korapilatsua baitugu. Idazkera simple, baina landua darabil Morillok liburu honetan.

«Florak lan bat agindu dio Aimarri: semeak etxetik alde egin du, eta etxera bueltatzea nahi du. Horretarako hainbat datu emango dizkio eta lanaren truke, 20.000 euro».

«Basurtora joan zen Garbiñeren bila, apaizez jantzita, eta gorputegiaren ondoan bilatu zuen. Arazoa kontatzea lortu zuen. Hurrengo egunean Garbiñek bere buruaz beste egin zuen.»

Alearen egileak:

